

# ELGERA

A portrait of a young man with curly brown hair and a nose ring, wearing a grey Champion hoodie. He is standing in front of a large mural that depicts a cityscape with a prominent skyscraper and rolling hills in the background. The mural is partially obscured by a large white graphic element resembling a stylized 'V' or a similar shape.

**MATEO MURILLO GARCIA**  
**'TIKTOKER' EZAGUNA**

**"Jendeak pentsatzen du bideo bat igotzea oso erraza dela, baina ez da horrela"**



- 3 Ikus-entzunezkoak
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Jolasak
- 8 Erreportajea
- 10 Erreportajea
- 12 Irteera
- 14 Tresna digitalak
- 16 Emozioen mapa
- 17 Bitxikeriak
- 18 Lehiaketak
- 20 Denbora-pasak



# aurkibidea

ELGERA 19. ZB abendua

- 22 Kirola
- 24 Erreportajea
- 26 Bitxikeriak
- 27 Bertsolaritza



**Argitaratzailea:** ELGERA LANTALDEA: Botikazar BHI, Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Elorrieta-Errekamari LHII, Eskurtze BHI, Gabriel Aresti BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, Ing. Jose Orbegozo HLHI, Kirikiño Ikastola IPI, La Salle Bilbao HLBIP, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, B01eko eta B02ko Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri Programa eta PREST! aldizkaria.

**Inprimategia:** Antza. **Ale kopurua:** 4.800. **Webgunea:** [www.elgeraldizkaria.wordpress.com](http://www.elgeraldizkaria.wordpress.com)



## MOTORRAK BEROTZEN EUSKARALDIRAKO

Euskaraldia azaroaren 20an hasi da baina Ibarrekolanda BHI n hamaika lan egin ditugu aurretik. Hasteko, oinarria landu dugu, hau da, motibazioa. Horretarako, esketxak grabatu eta gelaz gelako motibazio saioak egin ditugu. Ikustekoa da benetan zelan lagundu diguten giroa aldatzen!

Elkarrizketak ere egin ditugu, testigantza zuzenak beti suertatzen baitira aberasgarriak. Hasiera data hurbildu ahala, berriz, talde -argazkiekin eta abestiaren koreografiarekin ibili gara. A zelako izerdialdiak!



Beraz, badakizu, irudiak ikusi nahi izanez gero, sar zaitetz hemen:



“ Jendeak pentsatzen du bideo bat igotzea oso erraza dela, baina ez da horrela ”



Tatiana Hernández Céspedes

Mateo Murillo 100K jarraitzaile baino gehiago dituen 'Tiktoker' famatua da. 14 urte baino ez ditu eta 'influencer' moduan agertzen da sare sozialetan.



### Nola azalduko zenuke zer den Tiktok eta zertarako balio duen?

Tiktok sare sozial bat da. Bideo laburrak grabatzeko, editatzeko eta partekatzeo aukera ematen duen aplikazio bat da. Musika, atzeko planoak, soinu efektuak, iragazkiak edo efektu bisualak gehi ditzakezu.

### Zergatik da berezia Tiktok? Zer dauka beste aplikazioek ez dutena?

Tiktok instalatzen dutuzenean helburu bat dauka: aplikaziora igotzen dituzun bideoak ahalik eta jende gehienek ikustea. Hori dela eta, 15 eta 60 segundo artean ahalik eta bideo entretenigarrienak egiten saiatu behar zara, oso dibertigarria da. Gainera, aplikazio honekin nahi duzun musika estiloa jar dezakezu, eta musika edo abestia jartzeaz gain, hitz egin, dantza egin edota argazkiak txertatzeko aukera duzu. Hauxe da niri gehien gustatzen zaidana.

### Noiz hasi zinen Tiktoken bideoak egiten?

Duela ia 5 urte, 2016tik gutxi gorabehera. Hasieran, Musical.lyrekin grabatzen nituen bideoak. Nire lehen bideoa Musical.lyrekin izan zen, orain, berriz, Tiktokekin filmatzen dut. Tiktok eta Musical.ly aplikazioak oso antzekoak ziren, baina orain ez dago modurik Musical.ly aplikazioa deskargatzeko, duela asko desagertu baitzen Tikoken mesedetan.

### Nola igo da urtean zehar zure fama? Denbora asko eskaintzen diozu Tiktoki?

COVID-19 birusak alde on bat izan beharko zuen. Guztiok konfinatuta geundenean ezin ginen kalera atera, ezta gure txakurrak paseatzera ere. Orduan, berrogeialdian bideoak igotzen hasi nintzen eta

gero eta jende gehiago hasi zen bideo horiek ikusten. Momentu hartatik aurrera nire bideoek mila 'atsegin dut' baino gehiago zituzten. Nire jarraitzaile kopurua igo zen, gaur egun 100K baino jarraitzaile gehiago ditut.

### Zer dela-eta hain arrakasta handia?

Egia esan, ez dakit. Bideoak igotzen ditudanean 'zuretzat' agertu ahal zaio jendeari. Zorte handia badaukat, bideoak biral bihur daitezke. Duela gutxi nik egindako bideo batzuk biralizatu ziren, bideo horiek jendearen gustukoak izan ziren. Horregatik arrakasta handia izan nuen: nire profilean sartzen ziren eta nik egindako bideoei 'atsegin dut' ematen zieten. Gero eta jarraitzaile gehiago nituen eta nire fama handitzen hasi zen.

### Bideoak gazteleraz egiteaz gain, euskaraz ere egin dituzu?

Momentuz ez ditut egin. Tiktoken gutxitan aurkitzen dituzu bideoak euskaraz, batez ere gaztelaniaz eta ingelesez daude. Tiktok mundu mailako aplikazioa denez, euskaraz egindako bideoak aurkitzea oso zaila da.

### Bideoak grabatzeko asmoarekin jarraitzen duzu?

Momentuz, bai. Batzuetan ezin dut grabatu denborarik ez daukadalako, izan ere, jendeak pentsatzen du bideo bat igotzea oso erraza dela, baina ez da horrela. Ideiak ditudanean idatzi behar ditut, gero ez ahazteko; gainera, bueltak eta bueltak ematen dizkiot, hau da, sortzailea izan behar dut. Jendeak asko espero du *influencer* batengandik; egia esan, ez da erraza, denbora asko ematen dut, batzuetan bideoak egiteko ideiarik ez zait bururatzen, orduan besteengandik ere ideiak jasotzen eta hartzen ditut.

Nire bideoak ikusi nahi badituzue, eskaneatu hurrengo QR kodeak:





## Nola moldatzen zara pandemia garai honetan klase erdi presentzialekin?



**Adrián Ocampo Sepulveda**

Gure zalantzak airean geratzen dira etxean gaudenean irakasleek ezin dutelako bi lekuetan egonaldi berean.



**Jessica Para**

Martxoko berrogeialdia eramangarria izan zen. Orain, klase erdipresentzialak ditugu eta gelako ikasleak talde bitan banatuta gaude. Erronkak gainditu behar ditugu eta taldeka lan egin behar dugu, baina elkarrekin egon gabe. Gainera, irakasleei batzuetan ahaztu egiten zaie ikasleak etxean daudela, eta beraiekin aurrez aurre egongo bagina bezala ematen dituzte azalpenak. Kontuan izan ikasle batzuek ez dituztela baliabide berberak, eta gehiago kostatzen zaiela klasea jarraitzea edo arreta jartzea.



**Eneko Molina**

Zaila izan da metodo honetara egokitzea. Ez da gauza bera irakaslearekin aurrez aurre egotea, edo pantaila baten atzean egotea. Ikasteko modua guztiz desberdina da, ikasgelan zalantzak sortzen zirenean berehala argitzen zenituen, etxean denbora bikoiztu egiten da.



**Joel Fano**

Garai honetan klase erdipresentzialetera ohitzea oso zaila da. Ikasleok ez dugu eguneroko egonkorrik: batzuetan etxean, besteetan ikasgelan... eta etxean oso errez galtzen dugu arreta. Bestetik, irakasle batzuk ez dute ondo bideratzen online klasea.



**Egoitz Iturrioz**

Etxetik lan egiten txarto, ikasgelan lan egiten: ondo!



**Jon Vazquez**

Klase erdipresentzialek hainbat arazo dituzte, batez ere informazioa bi lekutan izateagatik eta etxean arreta faltagatik. Horretaz gain, azterketak egiterako orduan hainbat arazo egoten dira denek klase berdinean sartzeko eta azterketa egun berdinean egiteko.





# Egunean behin, euskara erein!



*Egunean Behin* tribial moduko galdera-erantzunen jokoa da. Egunean behin partida bakarra jokatzeko aukera izango duzu; hortik datorkio izena jokoari, alegia. Hamar galdera erantzun beharko dituzu ahalik eta azkarren. Zenbat eta gehiago eta zenbat eta azkarrago asmatu, hobeto!

Aurreko urteetan ikasle bakar batzuek jokatzen omen zuten bakarka edo lagun-taldean, haien kabuz. Lehiaketak ahalbidetzen du taldeko parte-hartzea. Izan ere, edonork jokatzen du indibidualki eta nahi beste taldeetan.

Aurten, ordea, Botikazar osatzen dugun kolektibo guztien artean bultzatu dugu parte-hartzea. Lehiaketaren berri posta elektronikoaren bidez eta sarrerako telebistaren bidez jaso genuen. Gainera, taldeen arteko lehia ere hedatu da, eta hori positiboa da ikasleon ustez.

Batetik, lehia zintzoa sortu da gure artean, talde bakoitzaren baitan ez ezik, taldeen artean ere. Ikasgai batzuetan parte hartzen dute ikasleek eta irakasleak. Irakasleek ere euren talde propioa dute, baita Euskara Batzordeko ikasleek ere.

 **Leire Oliden**



Azkenean, denboraldiaren amaieran saria egongo da puntu gehien lortzen duen taldearentzat. Talde hori zein den jakiteko, kontuan izango dugu taldeetako lehenengo bosten puntuen batura. Saria zertan datzan ez dakigu, eta horrek kutsu misterioitsua ematen dio norgehiagokari.

Bestetik, eta hau da alderdi garrantzitsuena, euskaraz eta euskararekin ongi pasatzen dugu. Ez dira anitzak modu ludikoan euskaraz jarduteko aukerak eskolan, are gutxiago Batxilergoan! Euskaraz gutxi irakurtzen omen dugu gazteok. Bada, hauxe dugu aukera paregabea, sikiera egunero minutu eskas batean izanda ere. Gainera, irakurtzen trebezia hartzen dugu, arin-arin egin behar baita irakurketa. Beraz, inoiz ez baduzu jokatu, deskargatu app-a eta... ekin jolasari!



# Koronaklaseak

**Koronabirusak eragin handia izan du gure bizitzako arlo guztietan, bai aisialdian, bai lagunen artean, bai etxean, eta baita institutuan ere.**



*María Guiomar Arnaiz, Adrián Ginés Fernández eta Leire Denizli*

Institutuan hainbat neurri hartu dira gaixotasuna ekiditeko. Hauek dira horietako batzuk: hasteko, etxetik tenperatura hartuta joan behar dugu zentrora, maskarak erabili behar ditugu, segurtasun distantziak mantendu behar ditugu, ezin dugu gurea ez den materialik erabili, ordenagailuak garbitu behar ditugu erabili aurretik eta ondoren, sarrera eta irteera ordutegia aldatu da, atsedenaldira irteteko orduak ere, beste maila batzuetako ikaskideekin ez batzeko...

Geletan mahaia banatuta daude, eta sartu bezain laster, eskuen garbiketa ezinbestekoa da. Komunetan xaboa eta papera egoten dira beti, institutuko txoko guztietan desinfektantea, gel hidroalkoholikoa eta papera jarri dituzte. Pasabideetan ikasle pilaketarik ez egoteko, lurrean geziak ipini dituzte nondik ibili adierazten dutenak. Gainera, neurri hauek guztiak behin eta berriro gogorarazten dizkigute zentroko hormetan dauden kartelen bitartez.

Orokorrean, institutuarekiko erlazioa askoz hotzagoa da, ezin garelako hurbildu elkarrengana eta ezin garelako beste klasekoekin elkarrekin, hau da, kontaktua murriztu egin da.

## Zer gertatzen da ikasle bat gaixotzen denean?

Klasean ikasle bat txarto sentituz gero, institutuko COVID gelara joango da, etxera joan ahal izan arte. Bertan, arduradun bat dago dena kudeatzeko. Gelako ikasleren batek positiboa ematen badu, COVID protokoloa martxan jartzen da. Horrez gain, ikasle horrek etxetik jarraitu behar izango ditu klaseak *classroom*, *meet* eta horrelako baliabideen bitartez. Horretarako, askotan ikaskideen eta irakasleen

laguntza behar-beharrezkoa izaten da, etxean dagoena bakarrik ez sentitzeko eta klaseen erritmoa ez galtzeko.

## Aurten ikasketa bidaiarik ez

Kontuan hartu behar dugu institutua ez dela bakarrik eskola jasotzeko leku bat, askoz ere gehiago da. Lagunak egiten dituzun lekua da, beste ekintza mota batzuk egiteko lekua, esate baterako, kirol lehiaketak, euskararen eguna, inauteriak, Gabonetako festak, ipuin lehiaketak, irteerak, eta abar.

Hauetako bat izaten da ikasketa bidaia. Hau xe da gure kasua, 4. mailako ikasleak gara eta urte honetan ikasbidaia tokatzen zaigu. Baina Koronabirusak eragindako egoera dela-eta, zentroak erabaki du bidaia ez egitea. Berdin gertatu da institutuan egiten genituen hainbat aktibitateen kasuan, adibidez, Heziketa Fisikoan aldaketak asko nabaritzen dira: ezin dira dutxak edo aldagelak erabili eta lehen egiten genituen hainbat ekintza egitea ezinezkoa da.

COVID 19-ak gure bizimodua atzekoz aurrera jarri du eta institutuan ere jokabidea bestelakoa da. Baina, urte honetan, Koronabirusarekin bizitzen ikasi beharko dugu. Gauzak beste modu batera egitera egokitzea tokatzen zaigu. Ez dago besterik! Ezin dugu gure bizitza gelditu birus batengatik, denbora aurrera doa eta ahal den neurrian bizitzaz gozatu behar dugu. Eskolan egongo garen denboraz ere gozatu behar dugu. Ikuspuntu baikorra eduki behar dugu egoera honen aurrean. Neurriak hartzea beharrezkoa izan arren, gure arteko harremanak edukitzen jarraitzen dugu, lagunak egiten eta, azken finean, gazteak izaten.





# Gela egonkorra

Kaixo, Amets naiz, DBH4Ako ikaslea. Gaur gela egonkorra gerturatu naiz, egiten dituzten ekintzak begiratzera eta haiekin egotera. Oso gustura egon naiz haiekin, egiten dituzten zereginak azaldu dizkidatelako.



**Amets Kortazar-DBH4A**

Gaur, astelehena, haien klasera hurbildu eta egunean egingo dutena azaldu didate. Lehendabizi, data idazten dute arbelean; astero gelako batek hartzen du ardura hori, guztiek parte hartu ahal izateko. Gero, ordutegia idazten dute arbelean; hau da, egun horretan egingo dituzten ekintzak idazten dituzte (jarduera hau egunero egiten dute). Gaurkoan: errutina, matematika, jolastordua, gaztelania, erosketak, lana eta ingelesa egin dituzte. Eta, azkenik, menua idazten dute. Ikusten duzuenek, ez dituzte bakarrik txangoak egiten, baizik eta irakasgai bakoitzetik asko ikasten dute.

Arbelean idatzitakoa bi modu desberdinetan lantzen dute, irudiekin eta idatziz. Data, menua eta egun ho-

rretako ordutegia irudiekin adierazi eta gero, bakoitzak bere fitxan idazten du. Pertsona bakoitzari egin ditzaketen gauzak eta pertsona guztien aniztasuna kontuan hartuz, fitxa bat egokitzen zaio. Adibidez, batzuk beste batzuk baino denbora gehiago behar dute idazteko, edota batzuk letrak handiz egiten dituzte eta beste batzuk, aldiz, txikiz...

Egunean duten ordutegiari begirata, irakasgai bakoitza egunerokotasunean behar dituzten gauzekin lotzen dute; hau da, matematiketan adibidez, gehiketak eta kenketak egiten dituzte, eta eragiketa hauek egunerokoan nola erabili ahal dituzten ikasten dute. Diruarekin ere, tortillak saltzerakoan, truka-

tu behar duten dirua azertu behar dute: pertsona batek 2 euro ematen badie eta tortilla pintxo batek euro bat kostatzen baldin badu, jakin behar dute euro bat itzuli behar dutela. Eta horrela irakasgai eta ekintza guztietan.

Hori amaitu bezain pronto, asteburuan egin dutena kontatu dute, bakoitzak bere modura, argazkiekin, hitz egiten... Hau egunero egiten dute beraien artean hitz egiteko. Astelehenen kasuan asteburuan egindakoa kontatzen dute, baina asteke eguna bada, aurreko eguneko arratsaldean egindakoa kontatzen dute.

**Niri momentu honetara arte egoteko denbora eman dit bakarrik, hau da, hemendik aurrera kontatuko dudana ez dut ikusi baina haiek kontatu didatena kontatuko dizuet.**

Ondo esan dudanez, haien ekintzetako bat tortillak egitea da. Ostiralero tortillak egiten dituzte irakasleen artean saltzeko eta irabazitako dirua kanpoan egiten dituzten ekintzetarako erabiltzen dute. Ez dūt haien tortillak probatu baina ziur nago oso goxo daudela, nik klaseak jasotzen ditudan bitartean oso ondo usaintzen duelako.

Ez dituzte bakarrik tortillak egiten, astean behin sukaldaritza tailera egiten dute, errezeta desberdinak egiten ikasten dute, adibidez; gailetak, pizzak... Errezeta hauek egin baino lehen erosketak egitera joaten dira, egunean egingo duten errezetaren osagaiak erosteko. Errezeta egin ondoren harrikoa egiten dute, guztia garbitzen dute.

Etxeko lanak egiten dituzte, ohea egiten dute, garbigailua ipini, arropa eskegi, arropa lisatu, harrikoa egin, landareak ureztatu... Ekintza guzti hauek klasean egiten dituzte. Klase barruan sartzerakoan bi "zati" dituzte. Alde batetik, sukaldea ikus dezakegu, mahaiak, komuna, jolasak... Zati horretan etxeko gauzak egiten dituzte, kozinatzen dute, eskulanak egiten dituzte, jolastu... Bestetik, klaseko beste zatian (ate batekin bananduta dagoena) beste motako ekintzak egiten dituzte, matematika, ingelesa... Gelatik kanpo landareak ere badituzte!

Institututik kanpo ekintza asko egiten dituzte haien artean, museoak bisitatu, zaldietan ibili edota San Mameseko futbol-zelaia bisitatu. Duela gutxi, Arte Ederretako Museoa bisitatzen joan ziren eta koadro ezberdinak eta eskulturak ikusi zituzten. Tortillak salduz irteerarako dirua biltzen dute. Museora joan ostean, bertan ikusitako koadro bat kopiatzen saiatu ziren kopiatzen plastika irakasgaian. Azkenik, Psiko-motrizitatea ere egiten dutela esan dezaket.

Ikusi duzueenez, ekintza desberdin asko egiten dituzte irakasgai guztiak lantzeko. Egia esanda, oso gustura egon naiz, nahiz eta agian haiek ezin izan duten hori nabaritu, ez dudalako askorik hitz egin. Baina, urduri nengoen ez nituelako ezagutzen. Amaitzeko, asko ikasi dudala esan behar dut; beraz, esperientzia hau bizitzera gonbidatu nautenei eskerrak eman nahi dizkiet.



# Orbegozokoak Gorbeian



## Kaixo, Elgeratarrok:

Zelan eskolara buelta? Guri pixka bat kostatu zaigu, baina orain lanean buru-belarri ari gara. Aurten eskolan egindako lehenengo txangoa kontatuko dugu. Gorbeiako Parke Naturalera izan da.

Bigarren eta hirugarren ziklokoak joan ginen. Gure ideia inguru hau, landareak, bertan bizi diren animaliak eta gizakiaren eragina ezagutzeko zen. Baina, batez ere, egun dibertigarri eta desberdin bat eskolatik kanpo pasatzea.

**Gorbeiako Parke Naturala 1994ean izendatu zen eta babestutako gune zabalena da. Areatza herrian kokatuta dago**

Areatzara heldu ginenean bertako monitorea gure zain zeuden eta autobusez Parkeko aparkalekuraino hurbildu ginen. Handik hasten da ibilbidea, Saldropotik.

Gutxi gora-behera 1'5 kilometroko ibilbide zirkularra baina lau eta zailtasun gutxikoa da.



**Ibilbidean zehar zaldiak, ardiak, behiak eta satorrek lurrian egindako zuloak ikusi genituen**

**Ibilbideak 1 ordu eta 30 minutuko iraupena du eta ginkana baten laguntzaz bete genuen**



**Hasi baino lehen, taldeka banatu ginen frogak hobeto betetzeko, zarata gutxiago egiteko eta animaliak ez molestatzeko**

Natura eta gure ingurua zaindu eta babestu behar dugula konturatu ginen eta animaliak eta landareak errespetatu.

Ginkanaren frogak dibertigarriak ziren: zuhaitzen enborrak desberdindu, errekaiko tenperatura neurtu, animalien bizi tokiak aztertu... Oso ondo pasatu genuen!

Udazkena da eta zuhaitzetako hostoen koloreak oso politak dira, pagadia, batez ere, zoragarria zen, baina, ez genuen kontuan izan bezperan euria egin zuela eta hor hasi ziren gure arazoak basoan.



Zapatilak, arropa... den-denak lokatzez beteta amaitu zuen. Batzuk lokatzean erori eta goitik-behera zikindu ziren.

Hasieran, asko haserretu ginen baina, gero, Areatzako parkean jateko orduan dena ahaztu zitzaigun. Andereño Nagorek arroz pastela ekarri zuen eta denok poz-pozik jan genuen. Naturaz gozatzea oso polita da, baina...



**KONTUZ LOKATZAREKIN!**



# Anatomia klik batean

2020ko ikasturte berezi honetan, klase emateko bide berriak bilatu behar izan ditugu. Rekaldeberri ikastetxean, Anatomian aurkitu dugu bide berri hori. 1. baxilergoko ikasleok proiektu hau proposatu genuen: laborategiko praktikak QR baten bidez zabaltzea ikastetxean zehar.




*Aihoa Orrantia eta Jon Castañares*



## Nola hasi zen guztia

Laborategian egindako praktikak ikusita, beste ikasleei ezagutaraztea interesgarria izan zitekeela iruditu zitzaigun. Honen ondorioz, QR-en proiektua proposatu genuen. QR-ak egiteko, praktika bakoitzeko txosten bat egin genuen. Txosten hauek Canvaren bidez irudikatu genituen. Mota askotariko diseinuak eratzeko web-orria da hau, non ikasleok praktikak forma erakargarrian idatzi genituen. Behin diseinuak eginda, inprimatu eta kartulina batean itsatsi genituen. Kartulina horiek ikastetxe osoan zehar jarri genituen, ikasle guztientzako ikusgarria izateko. Ikastetxeko ikasleei interesgarria irudituz gero, QR horiek mugikorrarekin eskaneatzen dituzte.



## Praktika motak

Anatomiako ikasleok hainbat motatako praktikak egin ditugu. Lehenengoa, adibidez, entzefaloa. Praktika hau entzefalo bat marraztean eta haren atalak identifikatzean datza. Beste praktika bat, esaterako, mitosisa izan da. Praktika honetan, ikasleok tipula baten zelulak ikustea lortu dugu mikroskopioak erabiliz. QR-ak eta praktikak ateetan itsatsita mitosiaren atal desberdinak behatzeko aukera dago. Momentuz, ikasleei gehien gustatu zaien praktika gluzidoen erredukzio ahalmenarena izan da. Hurrengo praktikak sakarosaren hidrolisia izena dauka. Honen helburua sakarosa hidrolisiaren bidez erreduzitaileak diren bi monosakaridotan banatzea da.

## Gluzidoen erredukzio ahalmenaren praktika

Gluzidoen erredukzio ahalmena, lehen esan bezala, ikasleok gustukoak izan dugun praktika da. Praktika honen helburua gluzido desberdinek erredukzio ahalmena duten ala ez behatzea da. Horretarako, pausu batzuk jarraitu behar izan ditugu AnATOMIako ikasleok. Hasteko, gluzido hauek behar ziren: glukosa, maltosa, laktosa eta sakarosa. Prozesu berbera jarraitu behar izan dugu lau errektibo horiek: disoluzioen kalkuluak egin ditugu disoluzioak prestatu ahal izateko. Disoluzioak prestatuta, bakoitzaren 3ml hartu, eta saio-hodietan utzi ditugu. Ondoren, Fehling A eta Fehling B errektiboetako 1ml bota behar izan dugu disoluzioetara. Saio hodi bakoitza berotu behar izan dugu ondorioak ikusteko. "Glukosak, laktosak eta maltosak kolorez aldatu ziren; sakarosak, berriz, ez. Beraz, glukosak, maltosak eta laktosak erredukzio ahalmena dutela eta sakarosak ez ondoriozta dezakegu" esan du Joane Seco ikasleak.



## QR-en erabilera klasean

DBH 4.mailako ikasleek Biologia eta Geologiako irakasgaien mitosisa ikasten ari zirela aprobetxatuz, 1.batxillergoko ikasleok DBHko 4. mailako ikasleekin mitosiaren praktika egitea erabaki genuen aurreko astean. Praktika interesgarri hori aurrera eramateko, DBH 4ko ikasleek anatomia laborategiko atean dagoen QR-a eskaneatu behar izan dute haien mugikorrek. QR horretan agertzen da, hain zuzen ere, praktikan erabili behar diren materialen eta pausen zerrenda.

## Praktikan ikusitako ondorioak


anatomia ikasleontzat, eta baita Rekaldeberriko beste ikasleentzat ere. Izan ere, gure irakasleak esan duenez, QR-en proiektua abian jartzeko lehen helburua anatomia praktikak paper batean soilik ez geratzea da. Beste ikasleek praktika horiek ezagutzeko aukera izatea eta anatomia ikasleen lanak laborategitik kanpora eramatea izan dira beti lehentasunak. Ikasleoi metodo zientifikoa liburu bidez irakatsi izan zaigu, baina inoiz ez da praktikan jartzen. Metodo hori ezagutzera eramateko modu moderno bat delakoan gaude Rekaldeberriko Biologia-Geologiako eta Anatomia ikasleok. Irakasgai honen ikasleok oso gustura gaude ikasteko metodo berri honekin; izan ere, ohiko metodoa baino dinamikoagoa dela uste dugu; eta, beraz, erakargarriagoa. Gure lanak beste ikasleei erakustea betidanik iruditu zaigu onuragarria. Gainera, mugikorra eta teknologia eskola-orduetan erabiltzeko oso era desberdina eta aproposa dela erakutsi dugu.

# EMOZIOAK ETA COVID-19




## MAITASUNA

- Norbait gustatzen zaizunean.
- Familiarekin nagoenean COVID egoeran.



## POZA

- Kontrollean nota ona ateratzean.
- Andereñoak/maisua "zaska" bat egitean.
- Denbora librea dekogunean.
- Etxera heldzean maskara kentzean.
- Nola kontrolatu? Ezin dut kontrolatu.




## HASERREA

- Wifi-a joaten denean.
- Etxerako lanak ipintzen dituztenean jendea isiltzen ez delako.
- COVID monotema. "15 egun gehiago".
- Nola kontrolatu? Zerbait apurtzen edo norbaitekin desoagutzen.



## NAZKA

- Jantokiko janaria jatean.
- Komunak zikin daudenean.
- Hidrogelaren testura.



## TRISTURA

- Ikastolara sartzean.
- Nota txarrak eukitzean.
- Kalera ezin irtetzean.
- Nola kontrolatu? Negar egiten.

## BELDURRA

- Maisua haserretzen denean edo oihukatzen duenean.
- Etxerako lanak galdetzean.
- Familia arriskuan jartzean.



Kirikiño Ikastolako  
Hedabideetako ikasleak



# ORAIN ZURE TXANDA!



Kokatu emozioen mapa honetan: poza, tristura, haserrea, beldurra, maitasuna eta nazka. Noiz sentitzen dituzu? Zer egin dezakezu kontrolatzeko? Zein sentitzen duzu gehien? Emozio bakoitza kolore batez margotu.

A collection of seven empty circles of various sizes, arranged in a scattered pattern. The circles are intended for drawing or writing, corresponding to the instructions in the text above.



**Katalin Cámara,  
Maialen Cámara  
eta Lucia Alvarez**



## *“Espero ez duzunean heltzen da”*

*San Inazio BHIko hiru neskok Bilboko Udalak antolatzen duen Mikoleta ipuin lehiaketan sari bana jaso dugu. Katalin Cámara, Maialen Cámara eta Lucia Alvarez gara eta jarraian gure esperientziaren berri izango duzue. Hurrengoan zu zeu izan zaitezke sariduna!*

## Lehiaketan parte hartzearen ideia

Lehenik eta behin, adierazi nahi dugu sari hau ez genukeela inoiz irabaziko Aritz Argotek eta Mari Nievesek, gure 3. mailako euskara irakasleek, eskaini ziguten aukera ez balitz. Haiek eman ziguten lehiaketa honetan izena emateko ideia. Hasiera batean, istorio hauek beste irakasgai bateko lana baino ez ziren. Irakasleek Mikoleta lehiaketaren berri eman ziguten, bertan parte hartzera gonbidatu eta guk baiezkoa eman genuen.

## Istorioen inspirazioa

### **Lucia: Zuhaitz baten ikuspuntua**

Egia esan, ez nintzen ezertan inspiratu bereziki. Amaierak hunkigarria edo, behintzat, ezustekoa izan behar zuela argi neukan. Orduan pentsatu nuen lehenengo pertsonan kontatutako istorioa izango zela, protagonista zuhaitz bat izan zitekeen. Horrela hasi nintzen idazten, ikusi nuen aukera horiek bideraezinak zirela, eta orduan bururatu zitzaidan azkenean aurkeztu nuen alternatiba.



**Maialen: Bat egiten genuen bidaia.**

Ezustean ateratzen zen, idazten hasi nintzen eta horrela ateratzen zen.

**Katalin: Hondameneranzko paisaia.**

Irakasleak, gomendio bezala, paper batean gure istorioaren gai posibleak apuntatzeko

esan zigun, beraz, nik hura egin eta hiru gai dezente lortu nituen, Horien artean ideia hau egokiena iruditu zitzaidan, irakurlea pentsarazi egin ahal zuelako. Gaia aukeratu ondoren, istorioa jarraitzea erreza izan zen, eta horrela sortu zitzaidan ipuinaren ideia.

## Hau sorpresa gurea!

Egia esan, lehiaketa hau ahaztuta genuen. Joan den ikasturtean aurkeztu genuenez eta ordutik ez zigutenez berririk eman, besterik gaabe uste genuen ez genuela irabazi eta sariak emanda egongo zirela.

**Lucia**

"Sari bat irabazi nuela jakin nuenean, sinestezina iruditu zitzaidan, hainbeste parte-hartzaileekin ezinezkoa izango zela pentsatzen nuelako.

Egia esateko, behin baino gehiagotan egiaztatu behar izan nuen zerbait irabazi nuela sinesteko. Geroago, udal txean jakin nuen nola zeuden kalifikatuta postuak, eta gure kategorian zazpi ginenez, ez nuen espero oso postu altua. Azkenean, bigarrena geratu nintzela esan zutenean, aho bete hortz geratu nintzen."

**Maialen**

"Iraila amaieran amak lehiaketari buruz galdetu zigun, eta

aste bete beranduago sari-tuak izan ginela esan ziguten. Nire irakasle batek esan zidan, berria pasabideetako kortxo batean jarri baitzuten... eta zoriondu ninduen."

**Katalin**

"Berrogeialdiarekin eta kurtso hasierarekin, nire ama izan zen notizia eman zidana, eta zeharo harrিতa geratu nintzen. Lan ona egin nuela nekien baina ez hainbesterako, ez nuen espero irabaztea."


## Gozoa eta gazia

Esperientzia interesgarria iruditu zitzaigun udaletxea bisitatzea. Arabiar gela izugarri ederra da, oso berezia, ez genuen espero Bilbon horrelakorik egotea, deitale pilo ditu. Bestalde, ez dugu inoiz alkatea zuzenean ikusi, horregatik esperientzia hau ere oso baliagarria izan zaigu. Baina, egoera arraroa zen,

dena hotz, kontaktu fisikorik ez egotea arraroa zen. Guk sariak hartzen genituen, oso hotz; gurasoak beste gela batean zeuden, pantaila batean ikusten zuten transmititzen zena. Eskaileretan argazkia ateratzeko puntu batzuk jarri zituzten lurrean. Guztiz bestelako argazkia, benetan!




6	4			3				7
5		1		7		9		
								1
		4	9	8				6
	8			3				2
			4					
4			1	5	7			3
2		8	3					4
7	5							9 6



## Hitza pasa

1. Haizemaileen armazoa osatzen duten pieza luze eta meheetako bakoitza, aterkiak,...
2. Landare batzuen zurezko ehunetik edo ehun baskularretik sortzen den elorria.
3. Egoera arriskutsu edo arriskutsuei aurre egiteko kemenik eta izpiriturik gabea.
4. Zerbait erantzutea, galdetzen dena ebazteko edo komunikazio bati erantzuteko.
5. Loroa, hegaztia, eta bereziki hondo gorriko lumajea duena.
6. Persiarrek herrialde hau konkistatu aurreko Egiptoko antzinako erregeetako bakoitza.
7. Urez inguratutako lur zatia nonahi.



HITZAK-ORDENATU (ANIMALIAK)

M E L I A T E X T  
 G O A K A R T I R  
 R D O I K K A O O L  
 K A T O D O R  
 A N A M D O  
 N A I B S U G A L  
 I A Z R A E  
 I T S A A R S A R Z I  
 R R A I I Ñ U  
 O M A N A R N N A T M R A O G I

MENDIAK EUSKADIN

G F D T A E E J S Z K E O  
 T Z I T O L D J L N M O U  
 B N T A G P O H A J Z X I  
 F L L E P E Z U E R G Z R  
 A R A L A R A T S O Z X R  
 N A P R L E D J R Z U N O  
 B R T A P C M B N J M L K  
 O R O T L P E G S Z Ñ C Z  
 T H K O P A A O S N M T T  
 O G X Z D K H J N D T M I  
 A S F J K B T L O U P A A

Pistak:



Erantzunak 27. orrian

KOMIKI TIRA

Jon Ezama eta Alex Amo, Batxilergo 1. maila  
 La Salle Bilbao HLBHIP

Abenduaren 24ko gaua.

Tira, has gaitzen banaketa madarikatu honekin. Hotz hau jasateaz gain, aurten musuko deseroso hau eraman behar dut.

Etxe honetatik hasiko naiz!

Eno! Etxe batera sartzen naizen bakoitzean hidrogela bota behar izatea jasanezina da.

Azkenean amaitu dut oparien banaketa! Irrikaz nago jakiteko zer prestatu didan nire Mari Domingi maiteak afaltzeko.

Geldi hor! Barkatu baina, 100 euroko isuna jerri behar dizut musukoa jantza ez eramateagatik.

Azkenean, Mari Domingi nirekin haserretu egin da eta afaldu gabe geratu naiz!

Hidrogel askoren ondoren...

Ezin dut sinetsi!

# Jarduera fisikoa COVID garaian

COVID garai honetan, birusaren arriskuei aurre egiteaz gain, behartuta egon gara jarduera fisikoaren bidez gure gorputza indartzera eta arlo horretan Harrobiako komunitate osoa sentsibilizatu nahi dugu Egokitzapen Fisikoa heziketa zikloaren bitartez.

Egungo egoerak goitik behera aldatu du Harrobiaren Egokitze Fisikoko zikloa. kontaktu handiko eta harreman estuko jarduerak dira nagusi ikasgelan, eta aurreko kontaktu hori ekiditera behartuta gaude. Horrek hainbat traba jarri dizkigu ikasgeletan: klaseko kideen arteko harremana eta kontaktua hoztu, irakasleon, ikasgelen eta espazioen kudeaketa korapilatu, metodologia aldatzera eta edukiak moldatzera behartu, eta abar. Hasiera batean oztopoak izan badira ere, kirolak berak irakatsi digun moduan, egoera zaileri aurre egitea da irtenbide bakarra.

## Zailtasunak aukera bihurtu

Krisi garai honetan gure irudimena, baliabideak eta gaitasunak erakusteko aukera ezin hobea izan dugu: komunikazio-baliabide berriak landu ditugu (gorputz-adierazpena, komunikazio-gaitasunak, feedbacka zuzentzeko bestelako moduak, bideo-deiak...), egoera berriari egokitutako jarduerak landu ditugu (online entrenamenduak, online planifikazioa, irudimena landu etxean dauzkagun baliabideekin entrenatzeko...), ohitura osasungarriak landu ditugu (higienea, garbiketa, espazioen kudeaketa...), gaitasun digitalak landu ditugu, eta etorriko direnak!

## Prebentzio-neurriak ezartzen

Lehen aipatutako guztia nahikoa ez baltz, ikastolako espazioak (tatamia, fitness aretoa...), fitness materiala (pesak, gomak, makinak...) eta material teknologikoa (ordenagailuak, kaskoak, proiektoreak...) erabiltzeko prebentzio-neurri ugari ezarri behar izan ditugu aurretik:

- Ikastolara eta ikasgelara sartzerakoan gel hidroalkoholikoa botatzeko dugu eskuetan
- Ikasgela eta jarduera guztietan musukoa erabiltzen dugu
- Uneoro segurtasun-distantzia mantentzen dugu
- Talde finkoak sortu ditugu
- Aulkiak leku finkoetan lerrotatuta utzi ditugu
- Tatamian zintak jarri ditugu lekuak banatzeko
- Aldagelan, txandaka sartzen gara eta eremuak bereizi ditugu
- Fitness materiala zein material teknologikoa erabili ondoren garbitzen dugu

## Gure aurtengo erronkak

Irailean ikasturte berria hasi genuen hainbat ohitura aldatzeko beharrarekin; izan ere, udan ikasle asko etxean gelditu dira eta telebista ikusten edota bideojokoetan eman dute denbora asko.

Argitaratzen ari diren ikerketa askok diotenez, heziketa fisikoak eragin positiboa dauka koronabirusari aurre egiteko; alegia, jarduera fisikoaren bidez gure sistema immunologikoa indartzen dela diote adituek.

Hori horrela, Egokitzapen Fisikoko ikasleak bi erronka prestatzen ari dira Harrobiako komunitate osoa sentsibilizatzeko: bata, ikastolan gauden bitartean, sedentarismoari aurre egiteko entrenamen-

duak egitea; bestea, konfinamendu posible batean, etxean eskura dauzkagun materialekin entrenamenduak egitea.

Espero dezagun bigarren motako entrenamenduak erabiltzea jarduera fisikoaren beharraz jabetu garelako eta ez berriro konfinatuta egongo garelako.

Ondorengo hilabeteetan horren berririk izango duzue.



# COVID-19 TALDEAN SARTU DA

**Txurdinagako lanbide heziketako gizarteratzeko ikasleen artean COVID-19 kasu bat bizi izan dugu.**

Azaroaren 7an gure gelakideak, Anak, positibo eman zuen. Azterketa garaia zenez, gehienok ikasteko goiz altxatu ginen, bat-batean Whatsapp taldean Anaren mezu bat jaso genuen “POSITIBOA NAIZ!”. Momentu horretan beldurra taldean nagusitu zen, baina umorez hartu genuen. Ana errudun sentitzen zen, klasekide batzuen izenak eman baitzuen, aurreko egunetan beraiekin patioan batera egon zelako. Orokorrean, saiatu ginen erantzun positiboa eta animoak ematen, bera lasaitzeko.

Hasiera batean, logelan gatibu gelditzearen beldurra geneukan, baita familia kutsatzeko ere.

Bestalde, azterketa sasoiaren zenez larritasuna geneukan ziurgabetasunagatik: Klasera bueltatu behar gara? Konfinatu beharko gaituzte? Positiboa ote

naiz? Azterketak online izango ditugu? Hau beldurra gurea...

Ordu bat pasatu ondoren, COVID-19 protokoloa martxan jarri zen, atsedendian musuko gabe Anatik gertu egon ginen klasekideok, Osakidetzaren deia jaso genuen: 5 lagun, konfinatu behar izan ginen. Hurrengo egunetan, PCR frogak egin zizkiguten. Zorionez, guztiok negatibo eman genuen eta bi egunetan amets gaizto baten geratu zen; Ana izan ezik, beste 20 egunez bakar-dadean bere logelan gelditu baitzen.

Oso gogorra izan zen Anarentzat, haserrea, amorrua, negar-gura, antsietatea, ezinegona... Birus madarikatuak eragiten dituen sintomak (sukarra, usaimenaren galera, zapore metalikoa, lo egiteko zailtasunak, arnas estua asmatikoa delako...) ere jasan zituen.





**Guzti honen ondorioz, hau joko bat ez dela kon-turatu gara , Ana ondo atera da esperientzia honetatik, baina milaka pertsona bidean gelditu dira...**

**Guztion artean lortu de-zakegu!**





Badakizue gure institutuan ortua daukagula? Goiok, gure Teknologia eta Robotika irakasleak, zuzentzen du proiektua eta bertan berakatzak, kipula txikiak, babak eta ilarrak ditugu landatuta. Proiektu honen helburu nagusia ikasleak naturarekin lotzea da, landareak ezagutu eta nola ereiten diren ikasiz. DBHko 1. eta 2. mailako ikasleez gain, gela egonkorreko ikasleek eta baita DBHko 4. mailako dibertsifikazio gelakoek ere lantzen dute, guztion arteko inklusioa bultzatuz.

**Nicole Serna (DBH 4)**

Gure institutuan datorren hilabetean 'Gaitun' proiektua antolatzen hasiko gara. Proiektu honetan patio aktiboak proposatzen dira, ikasleen artean jarduera fisikoa bultzatzeko. Horretarako, honako ekintzak hauek egingo ditugu: jolasak, txapelketak, lehiaketak, karaokea... Proiektu honetan, ikastetxeko guraso-elkarteak eta ikasleok, gorputz hezkuntzako mintegiaren laguntzaz ordutegiak eta ekintzak prestatzen ari gara, gure gorputza martxan jartzeko. Gainera, COVID-19 delata eta, askoz gutxiago mugitzen garenez uste dugu proiektu hau beharrezkoa dela. Zuek zer uste duzue?

**Ainhize Funes (DBH 4)**



Ba al zenekien gure institutuan 6 zuhaitz daukagula borobilean landatuta? Eta ba al dakizue zergatik deitzen den gure ikastetxeko guraso elkarte Sei Aritz? 1995eko Gabonetako oportretan, gure institutuko sei ikasle, gurasoekin batera, Pirinioetara eskiatzera joan ziren. Bertan, elur-jausi batek harrapatu zituen eta desagertu egin ziren. Erreskate lanek egunak iraun zituzten, baina, zoritxarrez, ezbeharrak amaiera tristea izan zuten. Buelatu ez ziren ikasle haien oroimenez guraso elkarteari Sei Aritz izena jarri zitzaion eta ikastetxean 6 zuhaitz landatu ziren.

**Lorena Ruesgas (DBH 4)**



Gabriel Aresti ikastetxea 1971. urtean inauguratu zen 'Instituto Nacional de Bachillerato Femenino de Txurdinaga' izenarekin. Izenak adierazten duen bezala, neskentzat baino ez zen izan hasiera batean, baina, 1978. urtetik aurrera ikastetxe misto bihurtu zen. Beraz, datorren ikasturtean 50 urte beteko ditu gure institutuak! Juan Daniel Fullaondo eta Alvaro Lf-bano izan ziren ikastetxearen arkitektoak eta itxura berezia eman zioten eraikinari, gaur egun oraindik mantentzen duena. 1979. urtean Bernardo Atxagak, orduan hemengo Euskara irakaslea zenak, ikastetxeari Gabriel Aresti izena jartzea proposatu zuen. Bozketan egin ostean izena aldatzea onartu zen.

**Eduard Tiganescu (DBH4)**



## Zentzuekin bertsoan



Ikusi nuenean  
San Mames zelaia  
iruditu zitzaidan  
futbolaren jai



suaren indarra  
Dastatu nuenean  
Deustun tomatea  
iruditu zitzaidan  
zeruko atea



UKitu nuenean  
Bilboren bihotza  
iruditu zitzaidan  
mendien ahotsa



Aditu nuenean  
txorien kantua  
iruditu zitzaidan  
itsas olatua



Usaindu nuenean  
lurreko belarra  
iruditu zitzaidan

Entzun bertsoak hemen:



6. maila A



### ERANTZUNAK:

1. tximeleta
2. katagorri
3. krokodiloa
4. dortoka
5. mandoa
6. suganbila
7. azeria
8. itsasizarra
9. iñurria
10. amona mantangorri



6	4	9	8	3	1	2	5	7
5	3	1	6	7	2	9	8	4
8	2	7	5	4	9	6	1	3
3	7	4	9	2	8	5	6	1
1	8	5	7	6	3	4	2	9
9	6	2	4	1	5	3	7	8
4	9	6	1	5	7	8	3	2
2	1	8	3	9	6	7	4	5
7	5	3	2	8	4	1	9	6

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN.

EUS +

KA +

RA ++

